

'Pispillu', Andrak Kantuan

Orain dela pare bat urte Ermuko Pispilu Abesbatzak asteen behineko lehen entsaiuekin hasi zen. Orduko 24 emakumeei beste horrenbeste gehitu zaizkie. Gehienek ez dute musika ezagupenik eta beraiena 'belarri' lan hutsa da, baina gogoz eta ilusionatuta dihardute.

DROGETENITTURRI: Noiz hasi zinen?

PISPILU: Gutariko batzuk D. Txomin abadeak antolatutako abesbatzan kantatzen genuen; geroago, 1.972. urtean, 'la rosa del azafrán' deituriko zarzuelan hartu genuen parte, baina abesbatza bezala orain dela bi urte hasi ginen. Orduan talde txikia ginen, baina gero eta jende gehiago bildu gara. Oraindik jende berriak sartzen dihardu.

D: Zer dela eta 'Pispilu' izena?

P: Gure asmoa Ermuari lotutako izenen bat bilatzea zen. Palazio ondoan zegoen Pispilluen arbola orain dela gutxi dakizuen gazotxu eta bota behar izan zuten eta Ermuko ume askorentzat jolasbide aparta izan denez, bere izena betirako gorde nahi izan dugu.

D: Zuen entsaiuetan zer egiten duzue?

P: Astelehenero biltzen gara, Elizako lokaletan. Errepertorioko kantuak behin eta berriro errepikatzeaz gain, ahotsa heitzeko bokalizazioak eta arnas ariketak egiten ditugu.


Hasieran talde txikia ginen, baina gero eta jende gehiago bildu gara. Oraindik jende berria sartzen ari da.

D: Musika ezagupenik baduzue?

P: Gehienok ez, abestiak entzunaren poderioz ikasten ditugu. Lehendabizi ahots bakoitzak bere kaxa ensaiatzen du; gero denok elkartu eta dena txukuntzen eta finkatzen saiatzen gara. Esan beharra dago oinarritzako musika ezagupenak, ahotsen mugimendua, noten balioa eta iraupena gutxienez bistaz sartzen joateko asmoa daukagula.

D: Oraindik andra berriak onartzen direla esan duzue, berri horiek nola moldatzen zarete?

P: Abesti berriekin inongo arazorik gabe eta aurretik ikasita daudenak nahiko motzak direnez, besteei entzunez apurka apurka aurrera goaz.



Momentuz gure kantu errepertorioa matxakatu behar dugu, gehiago ikasi eta maila dexentea hartu. Gero geroakoak

D: Zergatik kantatzen duzue?

P: Betidanik gustatu zaigulako eta ondo sentitzen garelako. Astean behin etortzea ez da inongo sakrifizioa. Gutariko askorentzat terapia itzela da: eguneroko ardurak utzi, beste andra batzurekin egon, barre egin. Urte askotan jarraitzekotan gaude, gure errepertorioa sendotu eta luzatuz.

Pispillu eta Abeslariak Abesbatzak borondate hutsez lanean diharduen Luis Mari Herreroren zuzendaritzapean daude.

D: Noiz hasi zinen musika mundu honetan?

Luis Mari Herrero: Gaztetan D. Txominek zuzendutako abesbatzan kantatzen nuen. Orduan ere behin edo bitan ihardun nuen zuzendari lanetan Abeslariak taldean, orain dela 18 urte hasi nintzen; sasoi horretan 40 inguru ginen. Urteekin selekzio naturala egin da.

D: Kantuak aukeratzeko orduan ze erizpide, ze kriterio erabiltzen duzue?

L.M.H.: Hiru abotsetan izatea. Laugarrena sartzen dugunean, batzuk altutik bigarren abotsera jaitsi beharko dira. Pispilluk esperientzia haundiagoa lortzen duenean, gizonekin abesteko moduan egongo da. Momentuz gure kantu errepertorioa matxakatu behar dugu, gehiago ikasi eta maila dexentea hartu. Gero geroakoak!

D: Abesti batzuk altuak izanda ere eskala bajuagoan daudenak baino errezago kantatzen dira. Zergatik da hori?

L.M.H.: L'etragatik. Guturalak adibidez (ga, ge, gi; ja, je, ji...) atzeruntz doaz berez eta haizea aurreruntz bota behar da. Bestalde, norbera nola dagoen ere zerikusi haundia dauka.

D: Proiektuak?

L.M.H.: Maiatza aldera, Albokarekin urte amaierako jaialdia. Zaldibarren edo Mallabian emanalditxoren bat egiteko ilusioa daukagu, beldurra kendu eta konfidantza hartzen joateko.

D: Azkenik, zer behar da ondo kantatzeko?

L.M.H.: Lasaitasuna eta kontzentrazioa. Estututa abestean, haizea behar den moduan eta momentuan hartu ezear, ito eta abestu ezinik geratzen gara.

PASTELDEGIA-DASTATOKIA
DELICIAS
Eskuz egindako pastelak
Bertako Labean
Etxera ere eramaten ditugu
Zubiaurre kalea, 2
(943) 171567 Tel.